# Suteak etxean: hobe da prebenitzea

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra

Babes Zibilerako Zerbitzua
Servicio de Protección Civil

Suteek eragindako heriotza kopururik handiena lotan gaudenean gertatzen da.
**ETXEETAN JARTZEN DIREN SU-DETEKTAGAILUEK BIZIAK SALBATZEN DITUZTE.**

## Kontuz ibili tabakoarekin

- Ez ezazu erre ohean zaudela.
- Ziurta ezazu zigarretak ongi itzalita daudela hautsontzietan. Ez hustu sekula hautsontzirik paperontzian.

## Instalazio elektrikoa gaizki badago edo gaizki erabiltzen bada, sutea izateko arrisku handia dago.

- Ez kargatu sobera entxufeak bertan biderkagailuak jarriz.
- Erabili entxufe eta konexio normalizatuak.
- Entxufetik atera gailu elektrikoak erabili ondotik.

## Sukaldea, toki bereziki arriskutsua

- Garbitu aldian behin sukaldeko ke-kanpaia, sutegiak eta ekonomikak. Hodietan koipea eta zikinkeria pilatzen bada, suteak sor daitezke.
- Ez ahanzi eltzea, kazola edo zartagina suan.
- Ez bota sekula urik sua dariola dagoen zartaginean edo frijigailuan. Erabili zapi heze bat edo estalki bat.

## Kontuz ibili gasarekin

- Egin instalazioaren obligaziozko berrikuspen guztiak.
- Gela batean gasezko sukalderik, berogailurik edo estufarik baldin badago, aireberritzeko irteera eduki beharko du kanpoaldera.
- Gasa erabili ondotik, itxi beti haren giltza.
- Etxebizitzan gas usainik sumatzen baduzu, ez piztu argia.

## Tximiniek eta estufek suteak eragin ditzakete

- Ez paratu altzaririk, arroparik edo gortinarik haietatik hurbil.
- Garbi eduki beti tximiniaren aire-lasterra, hondarrik eta trabarik gabe.
- Ez bota txingar edo errauts berorik zakarrontzira.

## Haurrek ez dakite sua zein arriskutsua den

- Ez utzi haurrak bakarrik etxean; beti pertsona helduren batek zaindu behar ditu.
- Pospoloek eta metxeroek haurren eskumenetik eta bistatik aparte egon behar dute.
- Kasu eman gai piroteknikoekin.



